Babiecaren hotzikarak

Joseba Alkalde

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1986 Joseba Alkalde
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1986
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Lehen multzoa:

«Amorearen aurpegiak ugaritu nahirik»

—1—

bai, goxua
gartzelaretoen dibagapenetan
benereen zemaia norainokoa den susmatzen
botatzen den denbora
zure gela konbentzionaleko Tapiesarenpean ukitzen
dudan ikara (bezala) da,
hestutasunaren gordailu; baiezko edo ezezko
«dis-moi ce que tu penses» penazko irrifarrez
ozonoratzen dugun bitartean
ez natzaizula zahartzarora helduko zinatzen dinat,
eta halako usaiagatik,
eskekoen albotik pasatzean ez dudala arnasarik
eutsiko,
salda gaineetako koipegun horirik ez dudala
kontatuko,
zinatzen dinadan bezala,
bai, Salo, jadanik
zein estupidoa den iturriak bilatzea!,
sekula barkatuko ez nianaren arima topatzen bahitu
nuen denbora orain

premiazko bihurri zarala aitortzen desbahitzen
dudana da
eta ene ruina izango zaralan jaurtikitakoa
injekzio ia burgesekin berreskuratzen dudana,
bai, Salo, guzti hau
Stivell grabatzen ari natzaizun betiko arrats
euritsuaren topikoarenpean.

—2—

Perretxikoak bilatzen harantzan
zerbatana eta guzti
atzean utzi dituzun eremu jantzietaz
pentsatzen ari naiz eta
albertxigo herbesteratuez
maite zaitut odol, tinteretako odol.

—3—

italierazko hitzekin elkarhurbiltzeak ikertzen
hatzamarretako eta era berean
hatzgordinetan sentitzean
pitillo mutur garraren berotasuna
safari zintzorka batetan zirraren ehiztari
bueltatzean
sekula ez dago ilargi gehiegirik Deustuko zeruetan
guzia denean maitatzen den eta ez den
guzia
zer erreibindikatzerik ez denean gelditzen ere
erreibindikakor
«atalzainaren beldurra penaltyaren aurrean»
eta nola edo hala
hire bera kapuletsuan mihia atrakatu nahiz
frente a frente aurkitzen dugunean asteni kirrua.

—4—

hizkuntza
primitibo
hontan idazteak dakarren dardara
dela eta
nire
gelako
liburuek
osatzen
duten
poema

horizontalari
begira
nagoelarik
ene
gelako
liburuek
osatzen
duten poema
horizontalari
begiratzen

diot

arrats euritsuetan
kafetegietan ostutako kortadiloekin
gozotuz
autobusetan marrubiak jaten dituzten bitartean
neskato Whinstondunei
pausatzen zaien emoziyoa
ez ote den
eguzkiaren uda izpi horixkek bainatutako
ganbara hartan, hiri
amonaren azpikogonarekin, aitonaren
sonbreroarekin
disfrazatzen hintzen bitartean
argazkiak eta argazkiak kaskadan ateratzeak
sorerazten zidanaren
tankerakoa; ez ote diren
hibai berdinaren afluenteak,
hire bihotz urrutiarraren deltan isurtzen den
hibaiarenak.

—5—

exkalibur ezpata odol eztitsuak
sistole eta diastole bakoitz artean
mertxikazalezko zure adatsaren kaiola
kontsolatzen du muinezko bihotz halakoak
zure patu konta eta kanta ezinak zure zortera
utzi zaitu gaueko forajido eta lotsagabe maskara
tokaio dituzun izotz ezti guztiak alpistezko
bizi osoa arrakalatu diate eta elkarrekin
egin genituen bidaietako kolorezko
argazkiak behatzen damatzat hitaz
ari naizen orenik bustienak, baina
erretrobisor batetik beste erretrobisorera
marmelada ogi gainean balitz bezala
kontrabandisten eran ludikoki 34 kandelen
argizari M. Monroekikoa heda-isuriz
ilargia bizian mamiferoon egiture-
tatik barrena sartzen zait haiztoz
zeharkatuz haiztoz bakardadearen piramideak
karisma basatienen iturri gorretaruntz
doan lema hozpela aintziren arkitektura
harritu berri berrira eta kezko lerro

aienaezin aienazail hontara
goizeko ihinzkor den garo xuabera
hire eta bion pitillo kasuala sakatuz.

—6—

bidexka digital hontako 7:28-etan muñekan
lerroz lerro itzuri dira zugandik larruaren
kutis gaziarenpean izkutatuz ezinahalaren
ispilu erretrobisorean gero eta
gorpuñoago gero eta galduago urrezko urmaelak
bezala gladiadore ausartenaren xarde
kresaltsua eta nire mihiak hire mihiarekin
sinatzen duen amiltzearen mailebu kontratoa
jeranioen buruzagiak etorri dira sarroz eta
lertzoz estalitako hagin hezedun emakume
konsternatu batzuekin baina gogorrena
aho aparatu zuzentzailearen kable ttudunetan
atxikita eta enpaste hondakinetan nahas serpentina
odoleztatuak kausitu arren ez diat fuerte fuerte
sinetsi.

—7—

hire karrikotxe edentsua nireganatzeko
marmorezko itsulapikoa harpointzerakoan
bihotza flekotu lekidake baina ez
larrialdiak eta
zoriontasuna, ipotxen orgasmoa
bezain ozen, bezain anker
bortitz eta basati
barlobentotik ateratako kakarraldo
oso xahu, xahu xahuak direlako.

—8—

non lerro bukagabeak amaitzen diren
eta frenesi oro bihozki guritzen den
bogatzen naiz itzartzen zurbil eta igokor
hire marmorezko kutisarentzat kremadun elur
kupulan
maitasunik gabe funditzeko prest
maitasunarekin funditzeko prest
iratzea bilatzen beti higan
asuina, patuaren gurenda herabe bat
jainkoei bakarrik inmolatua
nire mugarik nireena eta hire desterrua.

—9—

aldareetako lanbro nekatu eta
esperpentikorra, mila hitz-usotan
kontzerbatua ligamento gainean
zirgit hire jantzian erortzen itsasora
eta, zeru-hegazti, urrutian estalduaz;
non alanbike urazukratuak
hire ozteen estelak birsortzen ditu
hire ohean aienatzen den kruzada markatuz.

—10—

beti igarri dudala hire bezuza oro
urteurren hitsenetan esate baterako
eta denborarekin ttua nahitako tokian
kokatzeko nireganatutako trebezi aparta
hire gorputz tartaroaren maitale-leukozito
bilakatzeko, beti baina parasitu ozenena,
betileen keinu ziztada noiz emango duzun jakitea
ke gortina bat estratagema bat
gaiztokiro beratzen moskateltzan beste zerbait
esatearren, ez zait hitaz gehiegi ezagutzea iruditzen.

—11—

agian
kapuletoen lezio hitsez
jabetu direlakotz
iluntzero
tiralineaz xehatzen dira ipurtargien hasperenak
argitzear ahantziz lurraren dorikotasuna,
beren jopukor moldeeten
beren barre kalanbrikoen hozkirri teatralek
belarrei bizia ehotzen diete
insentsatuki
baina mentazko karameloak edoski behar
gaua zurbiltzeko
eta biskuterrak muntatuz
iluna katapultatuko dute
historio zaharrenak direlako naharoen gogoratzen
direnak.

—12—

Urrean,
badenetako zirrara kapritxosoa dute
eta izar zantarren argi mimosoa
bazkalosteko bakardadeetan
lapislazulizko zerupe eztietan, trenen gurendan,
eta higan pentsatzen erditutako
kearen ukaldiek, zurezko zaldi erraldoiek eta
ipotxen urrezko atabaketan eraztundutako
nire barre oro akribilatzen duten
hire ezpainen euriek
horren dira belartsu
horren dira lastozko.

—13—

umeak hirintzera jolasten diren bitartean
poemak idaztea behatzak pintatzea da, iraganean
odolez hezetuta
eta
betiro ikaraz
txirlak ernetzen dira tranbiletan,
mantekeri kirastua eta aintzira zaharrenak
galipotezko begiradetan barrena
linburtzen bezala
egun feriatuetan
¡ore moreak bipiatuz, gerlan bezala
Athos, Porthos eta Aramis-en ausardia irentsita
zigarroa pizten dugunean
ilunetan
arerioak nora apunta jakin dezan txupada
egiterakoan.

—14—

eta emisoretako nigarrarekin nahastuta
mixtoa itzal ez dadin
buruz behera ifini behar dela
ez diozu inori galdetu,
ezta ere, zure hauzune septentrional hortako
arrano gautarren, zerraustutako
anabasitutako asmoei
beren existentzietako kable muturra esparatrapuzko
errematearekin ikusten dutenean nekezegi ote zaien
bakardadearen klarinete xingolarekin konektatzeko
eukaliptozko atzoa galtzarberatu nahi dutelako edo,
eta kaleak trumoitu, eta hintzen aterbea ehiartu, eta
pultsoa
neurtu, eta ongi dago, eta luzerako da, eta...

—15—

Sikiran,
merzenario eitean
kollyrioz hezetututako hire begimusukatzaileen
zerrendan
baninduken;
hire gerriko zirrikitu gezitura
itzuli beharrean,
soinulari itsuak parafraseatuz,
nire hatzez osatutako goibeltasun eskuadrek
igelstaraziko bailituzkete hire lehiatila urdinberen
emakume kautiben abenturak
eta belarrietaraino zurubi bat hedatu
—alprojazko grinen garraitzaile—
eta pailaso traketsak bisitatu
eta bion etorkizuna auskalotu.

—16—

Sargorearen apopilo
Viks-baporub-aren igurtzitasunei esker bizi garenon
aurka
jaurtikiko ditut
doilorren astuntasunarekin osatutako
kobarsizko amarru gezen ozteak
eta gero
gatazka diapositibatzen dudanean
motxin gorringoetan txorabiatuko naiz
irudiak biroroituz,
eta hau
ez da haseraren lehen milimetroa baizik
izanen.

—17—

mihiak
zimeldutako aspaldi usain dezakezun
jakintsuen astrolabioetan
erditutako butxatutako
hire eskuen ezin estaliniko garrapina
betiko gerizpartean arnasa
brankia guztien hertsitasunean beso beroak
hosto ehiartuak huts ditzakeen minutuak
musuaren hotza iheska eta
zubi igokorra iganaz gaztelu hautsitik
erabat mardul erabat kizkur erabat babosu
gorrotoaren lurpean ni
gorrotoaren lurpean hi zerbait itzali zaizu
odolean zerbait itzali zaizu haragian.

—18—

biluz, (ene) gorputzaren osakor diren baldosa
poroitsu
zirrikituetan inyektatu balidate bezala
zainetako kanile arbolatsuetan zehar
ur lohirik zikinenaren beilegi hordia
hestu hestu presaka eta tatuajearen azpitik dantzan
alaitasun itsu baten filosofipean atxikita
gorroto samurrez gorroto samur
maitasun hezurtsu honen ohianetan
eta liken artean xuabe
pena ematen dit gauza laketik hitaz
pentsatzeak, urrengo batetan gauza berberak
pentsatzeko aukera eragozten baitidate segurki;
eta blasfemi bideak aukeratuko ditut paroxismora
artio.

—19—

nik,
ez dudan arren
lapitz berririk
erosi
zuri,
nire alabastrozko
satelite horri
poema berririk
idazteko,
ortozik gaur
abenduaren kaleetan
knut! knut! knut oro
mintzatzen zaizkion bitartean
haizeari
ausentziaren garrotiloz jota
nire katarro honen
kutsatzeak
suposatzen duen
maitasun beltza
eskeintzen dizut
nigandik hurbilegi nahi zaitudalako.

Bigarren multzoa:

«Babiecaren hotzikarak I»

—20—

metaameslariek
Las Arenasko txirlorazko geltokian
ez dakinate
ofertako artikuluetatik at zaudela
adierazten,
eta balekite zailago,
zer esanik jakin gabe
asma ere gabe
orduz gainezka hurbiltzen ari den treneko argiak
dakartzan mikrobio hegalariak
begira liluratuko baitziren (beste
aitzaki bat lotsa ezabatzeko)
eta
bainerako jabourtzan kraneo epela isurtzearen
gustoa oroituko bailukete;
errazu, prima, orduan
aszensorean eta nabari orduko
sartu zaizkizun bi polizi zakurrak
hirugarren eta bosgarren solairu artean irensten
hautenean

indize eta korazonaren kulunka aidean
marrazkatzeko astia ahantzita
ez
ahal
dakite
estoikoki
konformatzen?

—21—

kanilazko haurduntza izuari dagokion mezprezu kutsuak
su galdak ugaltzen ditu eta guraezak areagotzen
gau jostailuari erroa zokoratzeke grapatuz
nire begi goriek, indarge, ezin dituzte (lotsaz)
gerripean parapetatzen diren doministikun hegoak zeharka
eskuak, hitaz baliatzeke, nahirik maiz agortzen dira (zaizkit)
alferrikako luze bezain antzu den saiakera garuntsu batetan
pozpoloak baitliran
eta hik oraindik, beti bezala, ez dun ezkila hotsa muntatu
—neguko grina—
badakin
umeak beste ume batzuen gainera dakartzala odolak biluzik
ardontzi batetan.

—22—

kontura zaitez
tirita erabili bat kokatzen den bezala
aidean
menopausia jaioberriaren izenean
berkontura zaitez
hori, hori baino haratzagotik etorriko baita
irolamendutik-hots-irol konfinamendutik
hau baizik ez denean paradisu bakarra
odolaren asuintzea
hitleriar hitstasuna.

—23—

desaren aroan eroturik eriak ez dakite zer altxa
itsasoaren haundia, lehorraren itzela
bien bitarteko musuzko oraldia,
ez dakite zer altxa
eroturik eriak desaren aroan zamez deskojonata
ohian aitzurtuetako elurrezko behatsa
han hemenka lurruna, ozena, nigar, sahatsa
edo
amanita guztiekin egindako pozoina
boletus oroz osatutako olagarro jaki fin eta zolia.

—24—

gero,
bortxakeria bultzatuz
jarraitzen jarraitzera
eta
izurri sukartsuari hortzak zorrostuz,
gorrotoz betetako amorea sortuz,
joaten joatera
mugatu ginen,
konturatu ere gabe
geurea zela ohorea
jakin asmo ere gabe
nola orbain guztiak ordain,
konponketaren amorruz.

—25—

tarrat! baltzituta derrepente eta erpeak zolituta,
bauxitazko iglooetara trasladatu zituztenez gero
eskimalek
ez dakite zer den (Koldo lekuko)
hutsik egotea, hustasunik ere gabe
eta ez dira sudurrez musukatzen
agian
sayonara batekin agurtuko dira.

—26—

Sumendietako birjinotasun beltz zipotza era gainduituz
ditiburuak kolillaz lehertzen,
zombi mordoa irudimenean,
garaipenaren insipidotasunak eraginda biltzen diren
azalzaleak akusatzen ditut (nik ere egin dezaket)
beti eguzkitan eta beti ziraun erratu aburuetan,
bertan behera bertan behera erortzen erortzen
desasetasun desase oldarkorraren gonapeko hatzamar plantxatuei
maitemindura erasokor eraginari amore emanaz
nigar egizu nigar egiten duzun instantean
eta lur zokila birrintzen duzun segundoan birrindu ezazu zokila.

—27—

Oparotasunaren sedimentoak bere saria
elektroenzefalograma zuzenetan
enpeinatzen duelarik ziutateko hospital bakartietan,
sorbaldako hautsa astintzerakoan, etsai gisa
begiratzen gaituztenean
monologoetako ikatzak izukorregiak irudituko
zaizkigu
gure nahiak asetzeko eritegietako gela zuri
bakartietan eta
igeltsus estalitako eraiki berri izan behar zen
memento zoragarria
irteera erreprimitu eta lotua
mila gizaldi aurretik, higitzeke, mugigabe gogoetan
ezagututakoa
baimenean atzekoz aurrera jarririk ere akreedore
paira erraza,
berriro 500. mendean errepikatutako ekintza lizuna,
seat batetako atzeko jarlekuan edo ibarretako
larretan

belarretan

nohiznahi ixuritakoa,
Skardenallik erabat moztutakoa morroiei
tipleei, bati tiple
gelditzeko
hildo synkopatuetan agertzen du bakoitzak
bere gorputz-zango jantzi berrietan.

—28—

hitz kondensatuek liburu forratuetan ingurua
blaitzen duten bitartean
sakabanatzen kultura heziketaren indultoz zalantzen
amildegian
gustoren gustoz korritzeari uko egiten badiozu
erortzen zarenerako erdiraino zara egonen
eta aurretik egin behar genuen zerbaiten
oroitzapena faltatuko zaigu orduan
gero damuak eta penak
elika bada elika! elika ezazu burua, dardaraz,
azidozko

neonezko argiarekin,
denbora basatiak dira eta
sinetsgaitza da pildora batekin daitekena erdietsi.

—29—

burumuin derrameen aroan, gari motz baten
aztarnak
maiteminduraren
hegalak
telegrafoetako posteetan enredatzen direnean
anarkia goraipatzen
leihotik kale zikina begira ekainaren hemeretzian,
zuk eta nik

biok

gelditzen garan apurrok
heriotza itotzen dugu ertz batetik beste ertzera
neurtzearren neurtzearren
biziko arnasa okerra oinaze gorriaren oinetakopean
berbilatzearren, zama okatzen,
ea noiz askatzen gaituen azaro loratsuak bere
burdin adurrarekin
ea horma kontrako goitiken begirada enpotratzen
zaigun gungunaren aterbean eta
lehertzen

ea belaun gordin gainean ibiltzearen meritoa
kontatzean
dzapartada baten agorpena esnatzen den
abandonatutako atseginezko dorrean
ea kornea, ea retina eta ea niña itsotzerakoaren
dzastada
fender kitarra baten hari marruan itotzen den joten
joten eta joten
gehiegi da eta nekezegi,
gorde iezaidazu toki bat infernuko paradisuan
(nik konplitu dut deslaket izanagatik).

—30—

tentagarri dateke benetan ahuen naharoa
eta haragiaren laudorio gabezia
estalirik bakarrik ongi ikusia
eta desdebekatua
desezekia
marrubi erroek dakarten indarrarekin saiatzen hasiz
gero,
ahultzat hartuko zaituztelakoaren beldurragatik
snifatzeari uko eginen
ez bahioke;
eta
zerumugako ninfa zaharra
teilatuetako isilean hedatzen diharduenean
kanposantuko zementuzko horma gainean
abotsa banatuz,
eztul dirdiratsua zoriontzeko aukera konkretu bat
emanaz
zaunkaka,
bizioek eta zizareek barnaltxorra zatitzen dutela
frogatuz,
segituan

hilotz hatsak gela berbera zipriztintzen duenean
arantzazko alanbrearen ingurotasunaren
azkonadagatik
esnatuko
ez bahintz,
orduan ere hire goibeltasun telurikoan
ez baitzen,
deus
ere
miatu gabe geldituko.

beroa...
adats grinak larrean, sakabanatuak, zuhaitzetan,
konorterazten gaitun ke hertsiak
marmorezko eklipse bakarraren biztanle egin gaitu,
lur hotza lekuko bakar, hobi, deabru...
eta bertsu militante batzuk, zorion usaia ekarriz,
ene deihadarrek ez dutela arrakastarik izanen jakin
dut,
eguzkizpi ispilu ilunean fulminante zeharka arren,
Venusko gau ganibetak
panpinak haurtzaroan
eta gaztaroan... direla
erranaz
herriarengandik urrun
ospezia eta arrakasta ukangaitzak zaizkie izanen,
badakit.

medium ororengandik egigaitz den egia irmoki
azaltzen denean
plajiotzat joten dut nazkagarrienetarikoa
eta gauerdiko ordubietan, loak erretzen,

kondenatuak gara pena hau irenstera
emakume bularrez osatua dagoen erlojuan;
dakusadanak ikusiz
pentsamolde guztien zikloaren bukaeran
partikulen eraldakuntza, ziki eroan,
eta gizon ziztrinen larrudendetako txatxamurka
usaia berdin zaienei
helduko zaie Giokondaren irria gau hontan eta ez
eni.
eta emeki
emeki ireki
ireki zaitez
ireki zaitez niretzat
ireki zaitez niretzat larruz
ireki zaitez niretzat larruz orain
ireki zaitez niretzat larruz orain emeki

preserbagailu hautsiz josita irudimena
zein lizuna zaran frogerazi didazu
kantauriar itsasoko leize ezin ikusiak bezain bezain
zurbil
eta horma horietan haizkora ankerrak zirrizka
nazkar batekin

uzten duen zirrikitu bakarrarenjabe baino ez gara
saritzat.

beroa...
nahi eta ez
bero ero erori arte
nahi eta ez:
arruntkeria dagokit,
eta gudari kantak ugari
ze zemai! eta ze lazapen!
Ai Presen, topikoa, standard eta orakaitza
hi haunat birao jaurtikitzaile,
agonia zorian autopista gris ibili guztiak
bahituran jarri,
zibiztoa eman
eta berriro eta berriro amets jaurtikitzaile-lez
ausartge-lez agertzen zarana haunat
eta haunat hodei sabaian zazpiretan
hamarretan
hamaiketan
gauerdiz
bat baino anitz gehiago haunat
Presen Monkadakoa,
ene garraixi arrakasta berotan
eta ez hain...

Hirugarren multzoa:

«Babiecaren hotzikarak II»

—32—

Quoque gurinezko deslilurak
amodio dislepsikoak quoque
kokatrasteen aterbe den plastiku permeaezinean
euri ttanttak bezala
ustel nadin, enbretxa nadin, ezratu nadin
ene penen kaiola ugerbera zulatzen dute kabutik
kabura
eta kaburin motelak
garitx fosilizatzen dira 12 aristen barrena, ispiluen
jatorria
aurkezten den bitartean irudimen gorrian,
noiz marathoien bapatean 8 bertizeak luzidotzen
duten
eta harri gorien jarioak bateo piletan itotzen diren
mikraren mikran.

—33—

ezin dezaken jakin neguko ipuiez
eta denborarik gabeko heriotzez
arrantzaleen beste. Ezkilatsuak
oropimentezko kaietan dautzan
laguntzarrak ordu krudeletan
hordiki
makur makusika esperoaren gabardinetan
penazko bitaminez inmunizatutako dardarazko
bihotzak
buztinezko minutuen iraupenean busto hautsiak
kapitelen dilindan
harapirika eztiak; eta ezkilatsuak beletak
mariñelen haizorratzak.

—34—

almidoitzan utzi ditut
erdiune koldarka itota
gargola urtarren sinfoni ubelak zokoratzen dizkidan
almonarazko musker naturalizatuen
ile erorketaren aurkako trebekeria eta
esan por esan eta egin por egin
egindako esan guztien porrota,
agiri ezkataezin adurtiaren
truke astindurikako mozkor beroa
eta herabaroan
nire gela alargun hontan italiari
zapata forma ebasten dion
hire maparen islada
beste pareteraino.

—35—

hiriko miseri goibel ia epileptikoa dela lekuko
lur ikarak bukatuz gero
azaltzen diren ebasle raposu aluak ere
gizakiak maitemindurez mugitzen direla
diote, eta matraila gorriak
metraila ebakiak
begian zauriak, ez ditu sekula lamia
bihurtu.

—36—

luze iritzian
hirugarren izarrari eta bere segundo erdi hordi
eraztuntsuari
puztu zaizkie esku zorrotzak haurren liburuetan
rekonstituyenterik gabe
eta pusilameñoki, nahi arrelepo nahi tantoballe,
erromerira
doaz, 96 gradutako alkohola irenstera beren
sumendizko kraterren
ontzi gorrietan
luze iritzian
arrazoiarekin
Ai Garimasu (hau bai askatasuna)
baina sakona izan behar da, bortitza
gizartearen ordena desafiatzeko eta tabu guztien
monotonia astuna hausteko.
ikusiko dut oraindik kanta disonante hau kantatzen:
esan zuen edonork.
etxeko indararrotzak mendeku bila dabiltza.

barkeroak,
berorik hitsenean margariten ura pozointzen digu
kanaberadi itsuan, baina nik,
zirrara
ziztrin baretasunaz
zazpiki mintzatzeko
batekin
maitasunaren konpota almudaazal estanpatu-
arenpean izkutatzen emango dut menderdi
eta mizpira hezurrak itzaltzen;
niniveko argizaria kardanberatuko nuke,
lakatuko zazkardi
minimoak,
zuen lar eta penate guztien gainera ekia kaka bezala
eror dadin.

haizearen garrantzia anis gozokiz betea
estanbreen eta pistiloen garraiatzen emaro,
ohore guztia kaobazko iratze oxigenotsuei
pleistozeno garaiko izozteei,
euri odoltsua eta ordudanik
ospatzen ospatzen anibertsarioa anfora batetan
anfora berdinean eki
izerdarazikorrarekin
datzana; eta amore emanaz klarki eta fite
doana. (urduri jartzen ninduen pakea falta zait).
Azukrezko txaplatak soldatzen ari natzainala nahi
ninake kontatu,
ausarten egurats goi garai gailurzale; txurrigeren
ametsarekin kontuz izateko
nahi ninake gaztigatu.

—39—

eguraldi txarrek
txokolatea eta ogia mendetako azkari bihurtu
dizkidate
eta inbetikoa denez
betiko erokeriaz harrotuta
zilarrezko anemonen usaia dastatzearen pozbera
korapilatzen
dut
geun metxak profeitatzen ditut
arimak kolunpiatzeko.

aurrefereken gurpilak otoiz egitera daraman serora eta
asuinei buruak mozten dizkieten haur ziztrinek
konparagai kuadratzen direnerako,
gure lorategiko zizare kohorteak
reketeirentsita gintuzke
Jorma,
jantzi transparenteak erabiltzearren gimnastak
penalizatzen
dituzten eran,
kupirarik gabe,
mardulki eztula eutsiz.

batzuetan
beren begi guztiekin, euliek, ez dute kristalen berri
eta kalifak, bere bitsa ezin baturik,
aberatsak ohialetan belaki betazaltsuak bezala
ez daki
zein lugubreak diren elizondoko komunak
—dezidikoki ximurrak—
dromos, dromos zen ezpain iheskorduna
gatazkaren samina. holliaren mingotsa. dardararen
epela.

bi gauza ziren, bestalde, izorramendu gorenera iganarazten nindutenak:

1.— gauerdian maindireen mugatik oinak ateratzea areago noski neguan

2.— eta bestea: aitamen logela aurrean kokaturik zegoenez gero eta etxeko ohitura ateak zabalik oheratzea zenez gero beldurrak masturbatzeko aukera oro ebasten zidanaren ohartze berbera; gainera: korridoreko itzalen merzedaren harian ezartzen ninduen.

—43—

kopetetako larretan tumore zipriztinak etan eta
errementatzen dituzten
lerroak dira
edo ubeltasun basatia edo mendi beltzaranak
behin eta mila biderrezkoak
munduari
hitsitxuradun billar bola dela
eta biziari
munduko ziturik nabarmenetarikoari
aterberik gabeko karanbola dela
jakinarazten dieten
eta pintanoki maitatuko
ditudan
Otoion eseritako
noria palurdoak.

—44—

hamazortzi gradutako arrats gihartsu hontan
karlistadak bilakatzen ziren haran hirintsuen
belartzan imaginatzen zaitut
ispiluak apurtzen edota mago
erahiltzaileen gurutzegrama egiten
igandeetako izparringietan eta
non eta nola hasi zen galdetuko balidate
azkartasun abiadura kutsakorrak maxilarrak ere
jelaturik utziko lizkieke
bai, Jorma, bertikal eta zut jaiste hotza
gela burges hontako kontraste bat baizik ez da
isurtze-hedatze nigartia bezala ogi gainean
pairagaitza bihurtu arte.

—45—

kopetaren erupzioz ekia ilki denerako
triglifo guztien gainetik eta metopa guztien azpitik
sinkolikolatu haugu, Mirande, gamadarekin
eta ordutik
hiri guztietako zementuaren leuntasunari uko egiten
dioten
txarku geometrikoak
haur herabeen zipriztintze ametsen gordailu isilak
dira;
hartaz gero
txinoek belle epoque-ko emakumeen bolantedun
gonak kontatuz
estraperlozko denbora ere urriegia bihurtu zaizu
bihurtu zaigu;
suzko kremailera bat jarri diogu haizeari eta
eragotzitako amore koldarrak aurkitu ditugu

suplizioaren truke
eta txinaurriz elikatzen diren solapen mamitik
«Ave Brunolleschi deshobiratua» diote galtzarbetik
hildakoek

diogu komun
zuloetan lo lotzen garenok
eta hire omenez
bolanderen erremolke jinak izango gaituk izarren
interruptorera artio
eta ON-etik OFF-era pasatuz gautuko dugu zernahi
betiko.

—46—

paraergelen hizkuntza urdinbera zurbilean ere ?-k
tres catorce deciseis baliopean lotzen du bere
visajearen eguzki gordezaila
eta hizkuntzaren sustarrak, bere menbrilozko
fedearekin
eguratsaren ukabil belauntzan
poeten garunak beratzen jartzen ditu Lizardi
quoque;
dikotomia hegalarian disimulatu nahiz
hire magal ozenisilean
elebi kutsuak martiri kutsua jaioeraziz
gulag idortsu bat biltzen du estandarte erdirako,
oraindik eta jadanik, erreturaz erretura,
goroldioz beterik
diosek ere gorde du beluko mezaren kolektarako
bere ogerleko korrespondientea,
erreturaz erretura
transzendentalegia
da
haizeagatik
gaur

apostatzea,
hura da bartzen jaki hutsa
hura bonba gabeko komuna
hura klorodun ura
hura...
eta sustarrak,
bere menbrilozko fedearekin
zure magal ozenisilean
eguratsaren ukabil belauntzan
martiri kutsua jaioerazten dizu;
ekialdeko udaberri gulag idortsua dateke.

—47—

Zer esanik ere ez:
abere aberiatuari
eta bioleta biolatuari
darien era simetriko
identikoan
darigu
guri
biori
aspertasun astun hau
hausterregun hontan eta hausterregunero,
euri haserretuak baionetatzen dizkigun
poroetan barrena
eta nokeagaia nokeatuz
gozoki soberen ondorioz
begi txinaurritasun geza goibel honek
agure oskilakorra bezala,
hitstasunak,
gauzen egoera naturalak,
ez gaitu
sorpresaz
hartuko.

—48—

naturalki baino noskiago oraindik
Gazako eremuetan eriden ohi zen:
poetaren jaraunslea;
bizi hutsal hontako
mendi usteletako
mehatz ustelen
mineral ustelaren
atomo ustelera artio
linburtzen ari den alimaña otzanari
biziko zaion pena;
ximur ximur
prendador bat medio
boligrafo atzeak ausikitzera hondakariki
naraman boterea; ez datzana
ez eguzkiaren sekretoak salatzean
ez maiatzeko ordurik goibelenean puzzlea osatzean
ez euliak uxatzean
ez dabiden 23. salmoan
gorantz gorantzka
loreak kultibatzen diharduen hauskera ia
zanganubera zimurra.

—49—

eskonbro multzotik
redimiberri den bizkotxo hautsia zelloz pagatu
orduko
erori naiz
agoteek ez dutela koladun pianorikan joko sekula,
baina, askoz aurretik nenkien
zer
den
boterea:
segurki
aburu ttipiena ere hire tamizpetik pasatu beharrean
datzan indar zentripetoa
edo
sorerazten didan
dolu kirru baten malura
edo, bihotza, niretzat
guttienez
hire eden suministroaren bila itoiz itoi
bagatzearekilan
badu zerikusirik.

hala ere, hirekin,
emeki nahi nuke hasi
eta emeki jarraituz
emeki bu(rru)katu,
gheisen punduarekin zurbiltasunean batu,
ogi mamiz igurtziz
bakardadearen karinkarako azken botoizuloa
ezaba
eta gauerdiko hire parking zirraratsuan
txarolezko misterioarekin amiltzean berdindu:
hire
arragoan
maitasunaren diapasoi beldurtia urratzen eta
urratzen
trofeo preziatu guztien arkatzontzi bihurtze
geldiezin hontan
oraindik
bidea leunduko didazulakoan naukazu,
baina zuk, ez dizkidazu zure mezulari itsuen
kartoizko hitzak baizik
bidali.

—51—

adurtiek, maite,
udazkenero udazkenero
ehunka egiten dizkiote pizzikatoak haizeari
eta beren «black power» inskripziodun nikietan
zorroraturik
alfonbrak bilbatzen dituzten bitartean
ez dakite
gainetik izan ezik,
gure afektu ikerezinaren berri
susmoak zuritzen zaizkie gutaz ari direnean.

arrisku zabal gorri lanbrotsuan dies irae dirudi arimarekin dies illa
munduko zoko ahastuan korapilo bat ahoan aski da loa agortzeko
eztarritik zintzilik
blai blai dario odolak eta
sasigaitzak hedatzen xederak omen balira habila goibel goibel
uzta petrifikatuaren fosil usaia dualarik aldean
igerrian; igarleen horma habe sustraitik apurtzen ari zain.

beltza beltzaren gainean eta hurbil
gurutzearen legea naturaren gorputza sutan
ireki ezan ate liskatsua eta ikusan nola munstroak elikatzen diren
martiri!
sententzia: garunak estailaturik irla bihurri.

etsipenez betetako amoreaz

itaun berria eta itaun zaharra gauerdiko maxinadan
erre zain bakanal askoren itun
eta hik
nazka dien anitz buruzango buztin oliotsuei
martiri!
hazi hotzaren lore
urrutiko errotetan zirikatutako erle
begietako salda ia goriak erraldoiak ugaltzen ditu
ingurua barrena heltzen da 1000 metrotara itaunik
gabe
hotz hotzez aurrez aurre eta hi
higandik bakarrik bizi haiz piltzar izerdiduna
patutzat dunalarik
rezesibo faktorea birhantzirik bigarrenez erortzen
haiz hildo berdinaren zemaipean.

—53—

Cochevelouren musika saiatzen
punduz eta hiperpunduz
ero traizioaren agiri jator urriak dira, Jorma
morroi egarridunen faltaz
lotzen gaituztenek
zuringokerietan galdu gabe
har ezan sakonki arnasa eta nabari sakonki:
tenteleko mandatik begiratzen diguten
ekialdeko leoi indar basatia eta mendebal ilargi
berotasuna dira
—neguko hotzikara—
minutuz minutu ttipituz doazenen burumuinak
zoratzen dituztenek
eta lantegitik arako azken poeta eredu sintetikoa
kurtsi atxakitzen denaren orrua ere
«nahi nuke...» baten ekintzan zaigu itoko tamalez.

—54—

azkenena
ezerezaren zibiztoan eta hurbil
urrats guttitako neurri abstraktoan
esteetatik bihotzerainoko balakada itsuaren
estrielako espiralñoetan datzan itzala
onartzen dut
inguratzen gaituen harrizko korapiloa
eta suzko kopeta eta isats sendodun
umezurztegietako emakumeek josten dituzten
trapuzko arranoak;
eskerroneko hilotzak garalako
eta tigre hutsak iraungo dutela dakigulako
kaleko idioten uzta higikorraren erdian errotzen den
segundo konfusoa haut
Byronen egutegian tarantulak aski ez diren bezala
azken resortea hautsi eta
biluzerazi zorian
izarrik gabe eta hiblia beltzak torturaturik
zilegi den zure larru lumatsuan azalaren akuedukto
tinkoa
dibujatzen dudanean

eta
ezpaina geldo hankatuz
argitara ateratzen zitzaizun odol tanto gorriaz
seguraski A
zigarro bokila untatzen huenean
gustatzen zintzaizkidanarekin
sosegatu naiz.

—55—

poema hau bukatzeko neurtu dudan denbora ere
higan bademat
hona hemen XIX-ko topiko estupikoa
«nire irlako palmera bakarrean bihurtzen ari
haiz»
aldiz ni zero mutu mutu
urrutitik
jantzi transparentedun gimnastek penalizatzen
dituzten tipoak lisuartzen
eta zure nireganakoa esklerosa ez dadin
bukolismorik gabe
anekdotei tokia egotzita maitatuko zaitut
exponenteak ahantzita
kalanbre susmotik aterri egon dadin.

higan filtratzea da
eta katakunbetan belarrak maratilatzea,
behe susmo kostradun gangarrez elikatzen demadan
sustarra hautatzea eta
bukle horiez oroitzea bizargeki,
(areto hontan besaulkiz behera malkoratzen
naizenean).

—57—

esan daiteke
horratz zorratz molatzak maitasun bizepsetan erein
ditudala
malko isurizaleen staff gorenak arerioturik naukala
eta denborak
aholku kopurua rupestraraziaz,
zirkinik egin gabe bere izaera hormatu duela
hitaz oroitzean.

berogailu parbularioen interludioan
arabiar linaje doilorren irudi kupirakorrak nire
bulbotik pasatzen
pasatzen eta pasatzen diren bitartean
ez zait estrainoa
basakatuak erle eztenkadaz ilargaiaren linternapean
hiltzen direnean
maizegi hodeiezko begiradaz torpedeatu dudan
zure gorputza
haizearen peninsula labanarekin lotzen nauen
itsmotzat
ematea eta
niretzat bakarrik almibaratuak
aurresentikorrak zaizkit nire daugin ekintzak:
mazedoniaren marrubiekin batera hozkailuratuko
zaitut ez hadin utsaltu
agian negu-pianu-iraunpengarri den izen batekin
birbateatuko zaitut
eta oinaze bero honek jarrai nezan osmiatzen
edonondik
espero dut.